

1903

**Euskal-itz jostaldien Batzarrea**

(Euskal-festen XXII garren urtea)

**¡AMA!****Berrogei ta amar pezetako sari bat eta bitezarra Irun-en irabazitako moldaera**

Biotz barrengo naigabe latza  
 leguntzen dute malkoak  
 lore legor bat udan bezela  
 egun sentiko lanbroak.  
 Argatik orain negar ta negar  
 ase nai luke kolkoak  
 t'argatik ere len baño geigo  
 maitatzen ditut bersoak;  
 oiek? amacho, malkoak dira,  
 malko pisu ta beroak,  
 nere animatik *mara mara* gaur  
 iñuritako tantoak.

¡Ama...! ¡Zer izen maitagarria!  
 ¡zer itz samur, eztiduna,  
 biotz-mugira guziak sendo  
 ernai-azten dizkiguna!  
 Ori da gure ordu zalletan  
 denok aitatzen deguna,

anima larri miñerituen  
 oroitz-iturri leguna;  
 ama zan lenaz nere penaren  
 sendakai on chit biguna,  
 t'ura gabe gaur ezin nezake  
 garaitu bizitz aztuna.

Etorkizun bat ona neukala  
 irichi naiaz ohea,  
 euskal-erririk urrundu nitzan.  
 urrundu... ¡doakabea!  
 utzirik ango inendiyak eta  
 nere kutun sar maitea.  
 Une char batez arturik ala  
 bear ez nuen bidea,  
 geroztik ezdet iñoiz arkitu,  
 iñoiz ez lengo pakea;  
 damu garratz ta zatilariaz  
 ergaldu zait. megopea (1)

(1) Espiritu.

Tristura makur illungarria  
 beñere kentzen ezdana  
 datorkit orain gogoratuta  
 ill zaidan ama laztana;  
 egiya zan, bai, ark neri onuntz  
 netorren eran esana,  
 ¡Jauna, barkatu; penaz aitu da  
 ni gabe soill arki zana;  
 ¡ill da lo negon irten-goizean  
 alboraturik nigana...  
 mušu emanda ezpail̄n tartean  
 malko bat utzi zirana!

Oroitutzen naiz nola goiz artan  
 nik ez ikusteagatik  
 negarrez anchen gela chokuan  
 egon zan bakar bakarrik;  
 etzait aztuko gero neketan  
 eutsiyaz ongi lepotik  
 ama gabuak nola esan zian  
 asnas estu bat egiñik:  
 «¡Seme... bazoaz... bazoaz orla  
 amaren aldamentetik;  
 betiko gabaz nere bizitza  
 estaliko da gaurtandik!»

Alaz guztiyaz mundu berrira,  
 eskergabeku semea,  
 bideztu nitzan... t'arrezkeroztik  
 ¡ausen da bakartadea!  
 Ikusi nai ta nabaitu eziñik  
 sorterriko mugaldea

ichas eskiñan gau t'egun nabil  
 irudipenaz betea;  
 umezurtzaren basamortuko  
 negu beltz eta luzea  
 igaroko det adime-leyaz (1)  
 jasorik biotz tristea.

Anchet eritu bakarren gisa  
 egingo det nere jira  
 zorabi eta kezka tartean  
 uts utsa dagon kabira;  
 kupigarrizko zorigaitz ontan  
 ¡noan... noan.. sorterrira,  
 amacho zarra ill dan leku ta  
 jayo nitzan alderdira.  
 Inguraturik alako puska  
 maiteak dauden tokira  
 otoitz egiñaz an bizi nai det  
 zeruetara begira. . . . .

Lengo nekean ordañez orain  
 zeruan erdi erdian  
 zure animaegon bedi ta  
 gorputza berriz lurpian.  
 Illargizko gau damorrigarria (2),  
 isill isill ta geldian  
 zauden lekura urbilduko naiz  
 egoitz ezti samurrian  
 arnacho, zuri, kontatutzero  
 koita guziyak batian...  
 illak bakarrik entzuten duten  
 izkera maitagarrian.

EMETERIO ARRESE.

(1) En porfiadas endechas.

(2) Melancólica.